



# OCRE-Manifestua,

## Observatori Crític de la Realitat Educativa

Herrialde baten hezkuntza sistemak zeren oso garrantzitsua dauka bai herritarren prestakuntzan bai gizartearen garapenean. Espainiar estatuan ematen ari den egoera hezkuntza esparruan larritzeko modukoa da. Eskola bertan behera uzten duten ikasleen kopurua gero eta altuagoa da. Derrigorrezko hezkuntza mailan gero eta errepikatzaile gehiago aurkitu ditzakegu eta, derrigorrezko hezkuntzatik kanpo, porrot akademikoa inoiz baino nabariagoa da. Egoera honen aurrean ezinbestekoa da hezkuntza sisteman parte hartzen dugun guztion haurnasketa sakon bat eta gizarte-mobilizazio orokorra eragitea.

1978ko Konstituzioa indarrean jarri zenetik, hainbat erreforma jarri dira martxan, horietako batzuk nahiko sakonak. Derrigorrezko hezkuntzan parte hartzeko beharra 16 urteetara arte igo arren, gure hezkuntza sistemako arazo larriak ez dira baino azaleratu egin oraindik. Martxan dagoen hezkuntza sistema hau ez da, egia esan, ez berdintasunean ez kalitatean oinarritzen: diseinu-akatsak, finantzaketa eza, ikasleak banatzen dituen bi sare ezberdinen erabilera, hezkuntza legeen ezegonkortasuna, ikasle babesgabeenak instituzio publikoetan batzea...

Azken erreformek izandako garapena (LOMLOE besteak beste) ez dute gehiegi lagundu gure hezkuntza sistemak daukan arazo nagusiak konpondu dadin. Aurretik ezarritako erreformen akatsetan zentratzen baitira soilik (baliabideen gabezia, finantzaketa eza, ratio altuak...).

Ondorioz, *Observatori Crític de la Realitat Educativa*-ren izenean, gure kezka helarazi nahi dugu lege berri honen ezaugarrien aurrean autonomia-erkidego ororen Lehen Hezkuntzako eta DBH-ko zentro askok erakutsi duten ondoeza, harridura eta kezka babestuz. Presaz egindako legea baita, aurretiko hausnarketarik gabe atera dena. Ikasgeletan egunero lan egiten duten profesionalen zeresana ez da kontuan hartu eta gure sistemak hobetzeko behar dituen neurriei buruz ez da ebaluazioazirik egin.

OCRE elkarteak LMLOE-ren ezarpenaren ildotik komunitate autonomoetan hurrengoko alertak salatzen ditugu:

1. **Curriculum-aren diseinu artifizial eta nahasgarri** bat ezarri da, kompetenzi ahul batzuen barnerapenetan oinarrituta eta ikasketa duhinen aurka doana. Malgutasun faltsu batean oinarritutako plangintza, eskolen arteko lehia areagotzen du, **ikasle behartsuenak berriz ere kaltetzen**.
2. **Ikasleek duten bidezko ebaluazioaren eskubidea** galarazten da eta haien familiei heltzen zaien informazioa ez da guztiz argigarria ezta errealista ikaslearen aurrerapenekin. Ezarri diren **ebaluazio irizpideak alferrikakoak eta**

**nahasiak** dira, gainera, komunitate autonomoen artean oso aldakorak diren irizpideak erabiltzen dira.

3. Irakasleak pairatzen duten gainkarga burokratikoa haien lan-kalitatea gutxitzen du. Aldi berean, politikariek bidaltzen duten mezua **irakasleekiko lanaren mesfidantzan oinarritzen** da, geroago komunikabideak handitzen eta zabaltzen dutena.
4. Eskola inklusiboaren beharra exijitzen digute baina haien **erratio garaiak mantentzen** diren bitartean, horrelako helburu berdintsuen lorpena galarazten dituztenak. Horrelako proiektuetan hain garrantzitsuak diren profesionalen falta, bereziki osasun eta gizarte-laguntza esparruetan, oso nabarmena da. Beste eskaera neurrigabe bat ezberdintasun sozialekin amaitzea izango litzateke, erronka hau ezinezkoa izango da irabaztea ezberdintasun estrukturala bizirauten duen bitartean.
5. Hezkuntz Ministeriotik eta Autonomia Kontseiluetatik **metodologia ezbaikorak** sustatzen dira, irakasleak mota honetako formankutzentan trebatzen hezkuntza baliabideen bitartez. Modu honetan, **sistema guztia merkantilizatzen** eta pribatizatzen da, hezkuntza merkatu bilakatzen.

Hau guztia dela eta, OCRE–tik hurrengoko eskaerak egiten ditugu:

1. Ezagutza tinkoak berenganatzen dituen eskola publiko duin bat, **herritar guztiek kulturarako sarbidea** izan dezaten, hiritak kritikoak bermatzen dituen eta gizarte-klase baxuen alde jokatzen duena.
2. **Curriculum argi, egituratu, zentzudun, errealista eta ongi arautu bat**, ikasleen artean berdintasunean oinarritutako aukerak sustatzen dituen, zentro guztiak kontuan hartuta, bereiztasun geografikoa, sozialak, ekonomikoak, kulturalak etab. alde batera uzten dituen, demokrazia bidezko baten sustraiak errotuz.
3. **Ikerketa didaktikoaren bitartez** zuzendutako hezkuntza-lege bat, sustrai zientifikorik gabeko moda eta *neuromito* berrietatik aldentuta. Hau era eraginkor batean ezartzeko, beharrezkoa izango litzateke era mailakatu batean finkatzea, gizartearekiko segurtasuna ziurtatzen.
4. **Irakasle ogibidearekiko errespetua berreskuratzea**, gelaren barneko botereak barneratzen, giza-kapital naikoa ziurtatzen, bereziki ikasleen aniztasunaren beharrak asetzeko unean eta irakasleen formakuntza zorrozten, ororen gainetik esparru bereiztuetan.
5. **Inklusio eraginkor** bat, giza eta **ekonomia baliabide naikoetan** oinarritutakoa, adierazpen onak eta utopikoak aldera batera uzten dituen. Legearen babesaren bidez, gure proposamenak aurrera eramateko baliabideen ziurtaketa eskatzen dugu.
6. Hezkuntz subiranotasuna biztanleriari itzuli, **kanpoko erakunde** politiko-ekonomiko internazionalak egiten duten **presioari eusten**, hezkuntza demokratikoaren esparruaren arloan zer esanik ez dutenak.

Azkenik, OCRE-elkarteak erantzunak aurkitzeko unean **bere eskua eskaintzeko** prest dago, gelaren barneko funtzionamenduarekiko jakituriaz baliatuz, irakaskuntzan emandako urteetan berenganatutako esperientziaz baliatuta. Hau guztia, edukien jakintza pedagogikoa, ikasleen prestakuntza hobetzeko ahalegina eta hezkuntza gizarte zuzen eta bidezko bati eusten dion zutabea delako **usteaz oinarritzat hartuta garatuko da**.

**Webgunea:** <https://asociacionocre.org/>

**Elkartzeko formularioa:** [Formulari](#) [Associació](#) [OCRE/Formulario](#)  
[Asociación OCRE \(google.com\)](#)